

Zientzia eta teknologia

Joxerra Aizpurua

Euri-ura edangarria al da?

AUSTRALIAN, Monash Unibertsitateko ikerlari talde batek euri-ura edangarria dela ebatzi du, baina beti ere baldintza batzuk betetzen badira.

Australiako Adelaidan oso zabal dutako ohitura da euri-ura aprobetxatzea, hainbat lekutan ur-biltegiak ipiniz, edangarri bihurtzeko. Ikerlariak hiri horretako 300 boluntarioekin egin zuten ikerketa: batzuei ura iragazteko tresneria eman zieten, eta beste batzuei –haiek jakin gabe– ura ia iragazi gabe jasotzen zuten tresneria banatu zieten.

Urtebete eta gero, ikerketan parte hartu zuten guztiek osasun-maila bera zutela ikusi zuten; ez gastroenteritis ezta beste gaixotasunik ere, ez ziren ugaritu euri-ur iragazia eta ia iragazi gabea edan zutenen artean.

Ikerlariak garbi adierazi dute lekuan lekuko egoera aztertu behar dela –kutsadura ari ote dira?–, baina ur edangarria falta den lekuetan, agian, oso konponbide interesgarria izan daitekeela euriarena baliatzea.



Euri-ura jasotzeko biltegia, Australian.

Hormaren bestaldea ikusi irratihinen bidez

AEBetako UTA unibertsitateko bi ingeniariak frogatu berri dutenez, irratihinezko haririk gabeko sare baten bidez hormaren beste aldean dauden pertsonen mugimenduak detektatu daitezke.

<http://ttiki.com/8297> (Gaztelaniaz)

Gaziegi jateak kalte egiten dio osasunari

Askotan entzundako leloa da artikulu honen izenburuan ageri dena. Orain, *British Journal of Medicine* aldizkarian argitaratutako emandako artikuluan, lelo horren frogak eman dituzte ikerlari batzuek, oso adin-tarte desberdineko pertsonekin ikerketa egin ondoren.

<http://ttiki.com/8298> (Frantsesez)

Zuhaitzen arteko lehia bizia sabanan

IKERLARIK aspalditik duten kezka bat argitze bidean jarri da. Kezka hau da: nolatan tropikoetan dauden sabanak ez dira baso trinko bilakatzen? Izan ere, sabana askok baldintza guztiak betetzen ditu baso bihurtzeko.

Erantzunaren lehen zatia erraza da: sabanetan sute ikaragarriak gertatzen dira, eta horrek eragozten du euren transformazioa. Baina zergatik beti zuhaitz eta landare mota batzuk salbatzen dira suteetatik, eta gainerakoak desagertu egiten dira? Suteen ondoren landare espezie asko hazten dira sabanan, baina hurrengo suteak gehienak akabatzen ditu, betikoak izan ezik.

AEBetako hainbat ikerlarik ondorio hau ateratu du: zuhaitz mota batzuek hainbat landare espezieren hazkundera bultzatzen dutela, euren lehiakide izan daitezkeen zuhaitzak akabatzeko.



Berotegi efektuak eragin kaltegarriak osasunean

Ikerlari talde batek oso datu interesgarriak eman ditu *The Lancet* aldizkari britainiarrean, berotegi efektuaren eraginez gaixotasunek edo, hobe esanda, haiek eragiten dituzten bakterio eta birusek, izan dezaketen jokaerari buruz.

<http://ttiki.com/8299> (Frantsesez)



Zientziari buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua zientzia@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16